

### 3. GAIA:

## UPV/EHUko ERIZAINZAKO GRADUKO TITULUAREN DISEINU PEDAGOGIKOA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

UPV/EHUko Erizaintzako Graduko tituluaren diseinua berrikuntza proiektu baten testuinguruan egin zen, Erizaintzako Diplomatura ematen zuten ikastegien lankidetzarekin. Hala, Graduko gaitasunak argitaratu eta gero (1), hiru ikastegietako tituluaren batzordeetako kideek hainbat lan saio egin zituzten urtebetez, hezkuntzan aditua eta pedagogian doktorea zen pertsona baten gidaritzapean (2).

Tituluaren diseinua egiteko prozesu osoan tituluaren gaitasunak izan ziren abiapuntua eta helburua. Irakasgaiak ez ziren erabaki azken unera arte; izan ere, garatu beharreko gaitasunek zehaztuko zuten irakasgaien eta gaien zentzua (3).

Literaturan begiratu gero, gaitasun hitzaren definizio ugari topa daitezke (4-12). Gaitasun bat garatzeak dagokion testuinguruan jarduteko gai izatea esan nahi du (13). Hori aski konplexua da, eta askotariko baliabideak erabiltzea eskatzen du: ezagutzak, trebetasun teknikoa, irizpideak, balioak eta jarrerak, besteak beste (14-17). Gaitasuna garatzea ez da bakarrik edozein trebetasun edo gaitasun espezifiko egiteko gai izatea, eta are gutxiago, eduki espezifiko batzuen ezagutza hutsa eskuratzea; haatik, «jarduten jakitea» askoz ere konplexuagoa da: zeregin profesional bat erantzukizunez betetzeko gai izan behar da testuinguru jakin batzuetan (18).


Ikasleek gaitasunak garatzen dituzte beren ibilbide akademikoan; hortaz, ibilbide hori diseinatzea, hau da, gaitasunetan oinarritutako ikasketa plan bat diseinatzea erronka handia da (19).

UPV/EHUko Erizaintzako Tituluaren diseinuan parte hartu zuten ikastegietako tituluaren batzordeetako kideek beti presente eduki zuten dokumentuetako bat tituluaren fitxa ofiziala izan zen (1); izan ere, fitxa horretan jasota dago gaitasun orokorretan eta espezifikoetan garatu beharreko prestakuntza.

Erizaintzako Gradua diseinatzeko (2,3), honako ekintza hauek egin ziren (1. irudia):

- Tituluaren 18 gaitasun orokorrak irakurri eta interpretatu ziren, eta tituluaren batzordekideen artean haien esanahiari buruzko adostasuna lortu zen.
- Erizaintzako gaitasun orokorrak unibertsitate gradu guztietako oinarritzko 5 gaitasunekin gurutzatu ziren, eta zeharkako gaitasunak izan zitezkeen bereizi ziren.
- Gaitasun espezifiko guztiak irakurri eta aztertu ziren; hau da, hiru moduluetakoa gaitasunak (oinarritzko prestakuntza; erizaintza zientziak; eta, practicuma eta gradu amaierako lana), honako hauek zehaztuz: zenbat denbora behar den haiek garatzeko (aldi luze edo laburrean), noiz landu beharko lirartekeen (tituluaren hasieran, erdialdean edo amaieran), eta zein arloekin zeuden lotuta (practicuma barne hartuta).
- Gaitasun espezifikoak zein ikasturtetan garatu behar ziren baloratu ondoren, ikasturte bakoitzaren gaitasun orokorrak definitu ziren (zeharkako gaitasunak

- barne hartuta), eta ikasturte bakoitzaren gaitasun orokorrak eta tituluaren gaitasun orokorrak gurutzatu ziren.
- Gaitasunak zein arloekin lotuta zeuden aztertu zen; ikasturte bakoitzean egongo ziren arloak erabaki ziren; eta, arlo guztiei zegozkien irakasgaien izenak adostu ziren.
  - Amaitzeko, Erizaintzako Graduako tituluaren egitura erabaki zen: irakasgaiak eta bakoitzaren kreditu kopurua (practicuma barne hartuta), eta haien kokapena graduan (1. taula).




1. irudia. Erizaintzako Graduako titulua diseinatzeko egindako ekintzak

1. taula UPV/EHUko Erizaintzako Graduaren egitura

	IRAKASGAIAK (1. seihilekoa)	ECTS	IRAKASGAIAK (2. seihilekoa)	ECTS
<b>1. MAILA</b>	Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa I	6	Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa III	6
	Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa II	6	Patologia: Oinarrizko Zainketak	6
	Osasun Publikoa	6	Erizaintzaren Oinarri Teorikoak	6
	Informazio Sistemak eta Datuen Analisia	6	Antropologia, Etika eta Legeria	6
	Osasun Zainketei Aplikatutako Zientzia Psikosozialak	6	<b>Zainketaren praktikarako sarrera</b>	6
	<i>Guztira</i>	<i>30</i>	<i>Guztira</i>	<i>30</i>
<b>2. MAILA</b>	Farmakologia	6	Komunitate Erizaintza	6
	Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan	6	Erizaintza Klinikoa II	6
	Erizaintza Klinikoa I	6	Bizi Zikloaren Erizaintza II	6
	Bizi Zikloaren Erizaintza I	6	<b>PRACTICUM I</b>	12
	Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak	6		
	<i>Guztira</i>	<i>30</i>	<i>Guztira</i>	<i>30</i>
<b>3. MAILA</b>	Erizaintza Klinikoa III	6	HAUTAZKOAR	18
	Erizaintza Klinikoa IV	10		
	Erizaintzako zerbitzuen antolakuntza eta kudeaketa.	6		
	<b>PRACTICUM II</b>	8	<b>PRACTICUM III</b>	12
	<i>Guztira</i>	<i>30</i>	<i>Guztira</i>	<i>30</i>
<b>4. MAILA</b>	<b>PRACTICUM IV-V</b> (ikasturte osoa 54 ECTS)			
	Gradu amaierako lana (6 ECTS)			

## PRACTICUMAREN DISEINUA LANKIDETZAN

Practicuma UPV/EHUn adostutako Erizaintzako Graduaren enbortzat hartu zen (2. irudia), eta practicumaren zikloak ikasturte guztietan sartu ziren. UPV/EHUko Erizaintzako 3 ikastegiekin practicumaren ECTS (European Credit Transfer and Accumulation System) kredituen kopurua honela banatzea adostu zuten: 6 kreditu lehen mailan, 12 kreditu bigarren mailan, 20 kreditu hirugarren mailan, eta 54 kreditu laugarren mailan. Guztira 92 kreditu; hau da, titulu osoaren ia % 40 (2,3).



2. irudia. Erizaintzako prestakuntzaren irudikapena

Gaiari buruzko literaturan jasotzen denez, practicuma testuinguru egokia da gaitasunak garatzeko (9,20). Beraz, era askotako arlo soziosanitariotan erizain gisa lan egiteko gai izango diren erizaintzako ikasleak prestatzeko, practicumean gaitasun horiek garatzeko egokiak diren testuinguruak eskaini beharko dira (ospitaleetako zerbitzuak eta unitateak, lehen mailako arretako zentroak eta zentro soziosanitarioak, besteak beste).

Graduan practicumerako 92 ECTS kreditu izateak erizaintzako prestakuntza osoa ematea ahalbidetu dezake, egokiak badira betiere tituluaren egitura (gaitasunen banaketa), metodologia eta erabilitako ebaluazio tresnak.

Erizaintzako fitxa ofizialak (1) adierazten duenez, gidaritzapeko praktikak praktika kliniko aurre-profesionalak dira, eta txandaka egin behar dira, gaitasunen amaierako ebaluazio batekin. Adierazten du, halaber, praktika horiek osasun zentroetan, ospitaleetan eta bestelako laguntza zentroetan egin behar direla eta praktikek aukera eman behar dutela balio profesionalak, komunikazio asistentziala, arrazoibide klinikoa, kudeaketa klinikoa eta epai kritikoa lantzeko. Dokumentuan adierazten da ere beharrezkoa dela tituluaren deskribatzen diren gaitasunei lotutako printzipioetan eta balioetan oinarritutako erizaintzako ezagutzak, trebetasunak eta jokabideak praktiketan integratzea.

Medinak (20) esaten zuen azken 50 urteetan erizaintzako prestakuntzan irakaskuntza teknikoa izan dela nagusi; hau da, prozeduren eta trebetasunen irakaskuntzan oinarritu dela, eta hori ez da nahikoa erizaintzaren zereginak betetzeko; izan ere, ikasleek askotariko testuinguru sanitarioetan sortutako egoeretara egokitutako erantzun integralak emateko gai izan behar dute (21).

Kontuan hartu behar da erizaintza lana ingurune konplexuetan egiten dela, osasun arazoak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonekin harremanetan eta askotan sufrimendua aurrez aurre ikusita. Egoera bakoitzerako erantzun egokia emateko, ikasleek egoki txertatu beharko dituzte ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak. Ikasleak egoera erreal horiek espermentatuko ditu practicumean, eta bertan erantzun egoki bat emateko gai dela erakusteko aukera izango du.

Erizaintzako Graduaren fitxa ofizialaren lehen gaitasun orokorrak honela dio (1): «Erizaintzaren arloan, gai izatea arreta sanitario teknikoa eta profesionala emateko, zaintzen den pertsonaren osasun beharretara egokitua, unean-uneko ezagutza zientifikoaren garapen mailaren arabera eta kontuan izanik arau legalek eta deontologikoez ezartzen dituzten kalitate nahiz segurtasun mailak».

Gaitasunek ikasleek garatu beharreko ahalmenak ezartzen dituzte, baina ez dute zehazten nola egiaztatu behar diren gaitasunak benetan garatu direla. Gaitasunen definizioak, oro har, nahiko abstraktuak izaten direla kontuan hartuta, oso garrantzitsua izango da ikaskuntzaren emaitzak zehaztea. Izan ere, ikaskuntza emaitzek gaitasunaren garapen maila deskribatzen dute, eta ikaskuntza prozesuaren amaieran zer lortu behar den argitzen diete hala irakasleei nola ikasleei (22).

Horrenbestez, gaitasunen garapena ziurtatzeko, lehenik eta behin, ikasleek lortu beharreko ikaskuntza emaitzak zehaztu beharko dira; alegia, non, noiz eta nola garatu behar dituen; era berean, ebaluazio tresnak eta tutoretza sistema erabaki beharko dira. Hori guztia diseinatzeko, partaidetza metodologia bat erabiltzea erabaki zen, practicumaren garapenean inplikaturako pertsonen lankidetzaz (2,3,23). Diseinuan honako ekintza hauek egin ziren:

- Ikasturte bakoitzaren ikaskuntza emaitza orokorrak erabakitzea, eta ezinbestekoak hartzen direnak zehaztea.
- Emaitza akademikoak lortzeko ibilbidea definitzea.
- Ibilbidearen osasun arloetan garatu beharreko ikaskuntza emaitza espezifikoak erabakitzea.
- Ebaluazio sistema eta tresnak definitzea.
- Tutoretza prozesua zehaztea.
- Practicumaren ikaskuntza emaitzak tituluaren beste irakasgaietan integratuta daudela egiaztatzea.
- Practicuma egiteko «giltza» irakasgaiak erabakitzea; hau da, ikasleek practicuma egin ahal izateko gaitututa eduki behar dituzten irakasgaiak.



## BIBLIOGRAFIA

1. Orden CIN/2134/2008, de 3 de julio, por la que se establecen los requisitos para la verificación de los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Enfermero. Boletín Oficial del Estado [internet], nº 174 (19 de julio de 2008) [kontsulta, 2021/5/13]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/o/2008/07/03/cin2134>
2. Uranga Iturriotz MJ. Erizaintzako prestakuntzaren eboluzio historikoa Gipuzkoan. Praktiketako gaitasunen diseinua egungo beharrei egokitzeko. [tesis en Internet]. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; 2013 [kontsulta, 2021/5/13]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/13404>
3. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kontsulta, 2022/4/1]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>
4. Perrenoud Ph. Construir las competencias, ¿es darle la espalda a los saberes? REDU. Revista de Docencia Universitaria. 2008 [kontsulta, 2021/6/2];1:1-19. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2008.6270>
5. López Gómez E. En torno al concepto de competencia: un análisis de fuentes. Profesorado. Revista de Curriculum y Formación del Profesorado. 2016 [kontsulta, 2021/6/2];20(1),311-322. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10481/42564>
6. Tejada J. Acerca de las competencias profesionales. Herramientas. 1999;56,20-30.
7. Tejada Fernández J. El trabajo por competencias en el prácticum: cómo organizarlo y cómo evaluarlo. Revista electrónica de investigación educativa [internet]. 2005 [kontsulta, 2021/6/2];7(2),1-31. Eskuragarri: <https://redie.uabc.mx/redie/article/view/192/332>
8. Tejada J. El prácticum por competencias. Implicaciones metodológico-organizativas y evaluativas. Bordón: Revista de Pedagogía. 2006;58(3),121-139.
9. Tejada Fernández J 1, Ruiz Bueno C. 10Evaluación de competencias en Educación Superior: Retos e implicaciones. Educación XXI. 2016[kontsulta, 2021/6/2];19(1),17-38. Eskuragarri: Doi: <https://doi.org/10.5944/educxx1.12175>
10. Villa Sánchez A. Aprendizaje Basado en Competencias: desarrollo e implantación en el ámbito universitario. REDU. Revista de Docencia Universitaria. 2020; [kontsulta, 2021/6/2]; 18(1),19-46. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2020.13015>
11. Villa A, Poblete M. Practicum y evaluación de competencias. Profesorado: Revista de Currículum y Formación del Profesorado. 2004 [kontsulta, 2021/6/2];8(2),1-19. Eskuragarri: <https://www.ugr.es/~recfpro/rev82ART2.pdf>

12. Yañiz C, Villardón L. Planificar desde las competencias para promover el aprendizaje. Bilbao: Mensajero; 2006.
13. Masciotra D. (2017). La compétence: entre le savoir agir et l'agir réel. Perspective de l'énaction. *Éthique publique* [internet]. 2017 [kontsulta, 2021/6/2];19(1). Eskuragarri: <https://doi.org/10.4000/ethiquepublique.2888>
14. Perrenoud Ph. La transposition didactique à partir de pratiques: des savoirs aux compétences. *Revue des sciences de l'éducatio* [internet]. 1998 [kontsulta, 2021/6/2]; XXIV(3),487-514. Eskuragarri: <https://doi.org/10.7202/031969ar>
15. Perrenoud Ph. Construire des compétences, est-ce tourner le dos aux savoirs? *Pédagogie Collégiale*. 1999 [kontsulta, 2021/6/2];12(3),14-22. Eskuragarri: <https://core.ac.uk/download/pdf/52977432.pdf>
16. Lasnier F. Réussir la formation par compétences. Montreal: Guérin; 2000.
17. Tardif J. L'évaluation des compétences: Documenter le parcours de développement. Montréal: Chenelière Éducation; 2006.
18. Paricio Royo, J. "Diseño por competencias" ¿era esto lo que necesitábamos? REDU. *Revista de Docencia Universitaria*. 2020 [kontsulta, 2021/6/2];18(1),47-70. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2020.13205>
19. Zabalza MA. El prácticum en la formación universitaria: estado de la cuestión. *21 Revista de Educación*. 2011;354,21-43.
20. Medina Moya JL. (2002). Práctica educativa y práctica de cuidados enfermeros desde una perspectiva reflexiva. *Revista de Enfermería* [internet]. 2002 [kontsulta, 2021/6/2];15. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10578/387>
21. Goñi Zabala MA. El espacio europeo de educación superior, un reto para la universidad. Barcelona: Octaedro; 2005.
22. Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación. ANECA. Guía de apoyo para la redacción, puesta en práctica y evaluación de los resultados de aprendizaje. Madrid; 2013 [kontsulta, 2021/6/3]. Eskuragarri: [http://www.aneca.es/content/download/12765/158329/file/learningoutcomes\\_v02.pdf](http://www.aneca.es/content/download/12765/158329/file/learningoutcomes_v02.pdf)
23. Uranga MJ, Gil P, Lasa G. Definición y secuenciación de los resultados de aprendizaje del Practicum de Enfermería. *Metas de Enfermería*. 2011;14(1):51-57.